

## BALMASIN (360m)



Malmasin, Balmasin edo Tritagana forma konikoa duen mendia da. Ugariak dira mendizaleek tontorrera heltzeko edo ingurutik txangoak egiteko aukeratzen dituzten irteera puntuak, izan ere, Basauri, Bilbo zein Arrigorriagatik irteera bertatik bertara aurkitzen den mendia da.

Dirudienez duela 3.000 urte inguru gizakiak tontorra aukeratu zuen bizileku eta bertan bizitzeko eraikinak egin zituzten. Gaur egun oraindik inguruan horren testigu diren harri piloak ikus daitezke. Izan ere, bertatik etsaien erasoak aurreikusteko ikuspegi paregabea zeukaten, tontorretik Nerbioiko ikuspegia ezin hobea da.

80.hamarkadan industrializazioarekin ingurua zaindu barik zegoen. Gaur egun ordea, zuhaitz mota ezberdinen birlanaketari ezker naturaz gozatzeko aukera sortu dute eta Bilbotik hain hurbil dagoen mendia urrun daudenen pareko bihurtu dute.

### **INFORMAZIO TEKNIKOA:**

- **Luzera:** 8,5 km.
- **Iraupena:** 3,5 ordu.
- **Desnibel positiboa:** 300 m.
- **Zailtasun teknikoa:** baxua.
- **Zailtasun fisikoa:** baxua

### ERAMAN BEHARREKO MATERIALA:

- Bakoitzak bere materiala eramateko mendiko motxila aproposa
- Mendiko edo trecking-eko botak (kiroleko zapatilak ez dira gomendatzen, orkatila ez dute ondo eusten eta).
- Txanoa eta eguzkitako betaurrekoak.
- Eguzkitako krema eta ezpain babesak.
- Bero mantentzeko arropak eta zira.
- Elurra egotekotan polainak.
- Kantinplora (gutxienez 1 L-koa).
- Hamaiketakoa.

### IBILBIDEAREN IRUDIAK:

